



IV. “TARTALO GASTEIZ” NOBELETA LEHIAKETA

Oinarriak

2026ean laugarrenez ospatuko den lehiaketa honek gure herrialden tradizio eskasa duen nobeleta, novelette, edo kontakizun luzearen literatura generoa sustatzea du xede.

PARTE-HARTZEA

Lehiaketak nazionalitate, jatorri eta bizileku guztietako autoreen parte-hartzea onartzen du.

Partaide bakoitzak nobeleta **bakar bat** aurkeztu ahal izango du.

Lana aurkeztean, partaide bakoitzak lana bere osotasunean **originala eta argitaragabea** dela aitortzen du, eta ez dela beste lehiaketetan saritua izan epaiaren momenturarte.

Parte-hartzaileak adierazten du aurkeztutako obraren egilea dela eta haren sorkuntza eta idazketaren gaineko erantzukizun osoa bere gain hartzen duela, sormen-ekintza funtsean hirugarrenei edo sistema automatizatuari eskuordetu gabe.

Pasaden edizioko irabazleak zein oraingo edizioko epaimahaikideak ezin izango dira aurkeztu.

AURKEZTEKO MODUA

Nobeletak honako posta elektroniko helbidera bidali beharko dira: **concursos@tartalogasteiz.com**, mezuaren gailan **Noveleta** hitza adieraziz.

Partaide bakoitzak mezu bakar bat bidaliko du **atxikitako** bi artxiborekin: nobeleta eta plika digitala. Bi artxiboek nobeletaren izena izan beharko dute eta, beraz, artxibo motaren bitartez ezberdinduko dira (ikus adibide bezala aurreko urteko lan garailea):

- Nobeletak DOCX formatua izango du, esaterako: El diario de Abdezadeh.docx.
- Plika digitalak PDF formatua izango du: El diario de Abdezadeh.pdf.

Plika digitalak partaidearen **datu** pertsonalak (egiazkoak eta egiaztagarriak) edukiko ditu: izen-abizenak, telefono zenbakia, posta-elektroniko helbidea, posta helbidea eta NAN, pasaporte edo antzeko baten eskaneatze edo argazkia.

Aurkezteko epea **2026ko apirilaren 16an** amaitzen da. Behin epea amaituta, ez da partaideekin hartu-emanik izango.



BALDINTZA FORMALAK

Nobeletak **euskaraz edo gazteleraz** idatziko dira.

Hauen gaiek **fantasiazkoan** izan beharko dute jatorria, hala nola, zientzia fikzioan, fantasian, errealismo magikoan, terrorean, gotikoan, thriller apokaliptikoan, distopian, historia alternatiboan, fikzio bitxian, fantawesternean, etab.

7500 eta 18000 hitz arteko **luzera** izango dute.

Testuen **konposizioak** oinarri hauetan ezarritakoa jarraitu beharko du (gai hauetako gehienak testu-prozesadorearen Paragrafo menuan konpon daitezke); hau da, honako ezaugarri hauek izango ditu:

- marjina guztiak **3cm**-koak,
- testu **justifikatua** (hau da, esker eta eskubi),
- **Times New Roman** letra-tipoa **12pt** tamainuan,
- **8pt**-ko osteko tartea (parrafo bakoitzaren osteko bereizketa),
- **1.15**eko (kontuz, ez 1.5!) lerroarteko (lerro bakoitzaren arteko distantzia) anitza.

Nobeletaren testua **ez da sinatu behar**, eta ez luke idazlearen nortasuna jakitera emango lukeen daturik izan beharko.

Baldintza hauen betetzea haserako egiaztapen fase batean egiaztatuko da: hauek betetzen ez dituzten lanak irakurketa fasearen aurretik baztertuko dira.

EPAIMAHAIA

Onartutako lanak epaimahai espezializatu batek aztertuko ditu, besteak beste, gaiaren edo edukiaren originaltasuna eta testuaren kalitate literarioa bezalako **irizpideak** kontuan hartuz.

Literaturaren, komunikazioaren, Akademiaren eta fantasiazkoaren arloetan sona duten pertsonen osatutako **epaimahai** paritario honek libreki ebatziko ditu deliberazio garaian sortu ahal diren intzidentzia guztiak, honako oinarri hauetan aurreikusi ez diren horiek barne.

Honen **epaia** apelaezina izango da. Halaber, hala erabakiz gero, sariak eman gabe utz daitezke.

Irailan zehar, lehiaketaren web orrialdean erakutxiko den dokumentu batean epaimahaiak, bere ustetan, kalitate handiagoa duten lanak nabarmenduko ditu, hauen autoretza jakitera eman gabe. Nobeleta **finalista** hauen artean egongo dira garaileak.



Epaia, sarituei posta elektronikoz edo telefonoz aldeztu aurretik jakinaraziko zaiena, **azaroaren 21ean** emango da jakitera, “Tartalo”. Fantasiakoaren IV. Astea Arteetan-en programaren barruko ekitaldi batean.

Sari banaketaren ostean, epaia Tartaloren web orrialdean **argitaratu** eta bertako hedabideetan zabalduko da.

SARIAK

Sarituek **diploma** bat, **garaikur** bat eta honako diru-**sariak** jasoko dituzte (zenbateko hauei indarrean dagoen araudiak zehazten duen zerga atxikipena kenduko zaie):

- Sari nagusia: 750 €.
- Bigarren saria: 250 €.

Gainera, bi nobeleta sarituak *The Fantastic in the Arts* seriearen laugarren **liburukian** argitaratuko dira. Hau fantasiakoak arteetan duen presentziarekin lotura duten artisten eta akademikoen lanek osatuko dute.

Argitalpenaren aurretik, saritutako nobelei **berrikusketa** ortotipografiko bat egin ahal izango zaie.

Lehiaketaren epaia argitaratu eta gehienez bi urte igaro artean, bi lan sarituak **antolakuntzaren esku** geratuko dira. Honek, lanak oroitzapenezko liburuan argitaratzeaz gain, erakunde kolaboratzaileen bitartekoetan ere erreproduzitu ahal izango ditu, autore direnez apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak bere 14. artikuluan gordetzen dizkien eskubide besterezinei kalterik egin gabe.

BERME ETA ERANTZUKIZUNAK

Aurreko guztiarekin loturik, eta lehiaketaren garapenean ohiz kanpoko egoerak ekiditeko asmoz, antolakuntzak honakoaz ohartarazten du:

1. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak **onartzea** dakar. Hortaz, aurreikusi gabeko intzidentzia guztiak lehiaketaren mesedetan ebatziko ditu antolakuntzak.
2. Lehiaketa lana aurkezten duten pertsonak izango dira hauen edukiaren **arduradun** legalak.
3. Partaide bakoitzaren betebeharra izango da posta elektronikoz aurkeztutako nobeletak jasandako edozein aldaketa (esaterako, beste lehiaketa batean saritua izatea) **jakinaraztea** aurkezteko epea amaitu bitartean.
4. Nobeletan egile diren pertsonen lehiaketaren antolakuntza **salbuestera** derrigortzen dira honek lanen aurkezpen garaian hemen egindako adierazpenen



TARTALO. VITORIA-GASTEIZKO FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN
TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)

zehaztasun eta egiatasun ezaren ondorioz jasan lezaken edozein kalteren aurrean.
Adierazpen hauek sariak banatu arte egongo dira indarrean.

